

BILBO

EGUNKARIAK

- ✓ Egunkariak
- ✓ Aldizkariak
- ✓ Bazkide Zerbitzua



ALGORTAKO ETORBIDEA, 78

© 94 491 27 34

ALGORTA

Maria Diaz de Haro, 7
Tel.: 944 278 000 - 48013 BILBO



Alemaniarren bihotza
Bilbo erdian

- ★ Euskal herriko areto guztietako filmak
- ★ Estreinaldiak
- ★ Kritikak

www.Egunkaria.com/zinema



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

■ Santutxuko Karmelo ikastolako guraso eta ikasleek protesta egin eben, ikastetxe berri bat eregi daien eskatzeko.

2. BIKAINA

Recalde zumarkalea, 43
Tel.: 94 421 94 33
48008 BILBO

ARGUIA KALITATEA

2000 S.L.

Zerbitzuak eta enpresak mantentzea

ARRIGORRIAGA

Tel.: 659 70 94 83

BEZAIN

K. Zabala
K. Yuste

Psikologia klinikoa eta sexologia

Tel.: 94 416 08 43 • BILBO • e-mail: bezain@euskalnet.net

Borrokari ekin eutson Santutxuk

Karmelo ikastola barria non eregiko daben jakin arte, ez eben etsi Gurasoan Alkarteak eta auzotarrek

Santutxuko Karmelo ikastolearen egoera «alegala» onartu eban Bilboko udaleko teknikariek egindako azterketak. Egun, etxebizitza batzuen lonjetan dagoz ikastolako ikasgelak, ikastetxe barria eregi arte.

1993. urtean sartu zan Karmelo Ikastolea sare publikoan. Orduan, ikastolaren ondasun higiezin jabetzea Eusko Jaurlaritzaren eskuetan gelditu zan, alde batetik, eta udalari egokitu jakon ikastolaren kudeaketea, bestetik. Azkenengo zortzi urteetan ikastolea ipinteko leku barri batentzako lur erreserbarik egin ez izana txarretsi eban Gurasoen Alkarteak, Karmelo Ikastolaren eraikinen egoerea kontuan hartuta.

Ikastola barria eregin behar

Behartsuen Senidetxoak izeneko Santutxuko lursailean, zentro barria egiteko beste leku dagoela uste izan eban Gurasoen Alkarteak.

Ikastolarentzako orubeak ho-

gei etxebizitzaren lekua hartuko eban. Pisu gehiago daukazan etxeak eregi gero, ez legoke arazorik. «Inguruan hori baino eraikin altuagoak» dagozala gogoratu eban Fede Arrutik, proiektuaren egile eta Karmelo

Ikastolako ikasle izandakoak. Aldaketeak ez leuke egitasmoa garestituko, ez enpresa eraikitzailearentzat, ezta Udalarentzat be. Etxebizitza, lokal eta garaje kopuruak bere horretan mantenduko litzatekez. Era berean, berde guneak hasierako egitasmoan jasotakoak izango litzatekez.

Ikastolak zutik dirau

Santutxun D eredia eskaintzen dauen ikastetxe publiko bakarra da Karmelo Ikastolea. 38 urtetako ibilbide luzean auzoaren historian izan dauen eragina nabarmena izan da.

Gurasoen Alkarteak mobilizazioak antolatu zituan, euren egoera konpondu daiten eskatzeko. Euskalgintza, kultura eta kirol munduko hogeitik gora taldek, alkartek eta sindikatuk bat egin eben. Urbanizazio lanak hastean epea amaituko jakon ikastolari, hori ekiditu gura izan eben.

Bilboko Udalaren esanetara

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila prest azaldu zan urrian Behartsuen Senidetxoaren ondoko orubean ikastola barria eregiteko, aurretik bestelako aukerak gehiago gura izan bazituan be.

Gurasoen Alkarteentzat orde, aukerak nahiko eskasak ziran. Auzotik atara, instituturaren pasatu edota beste herri ikastetxe baten ondora eroan gura izan eben ikastolea. Azkenik, Fede Arruti Karmelo Ikastolako ikasle izandakoak proposatutako proiektua onartu eban Hezkuntza sailak. Oztopo bakarra Bilboko Udala suertatu zan.

Iñaki Bitxitegia
Villamonte plaza, 3
Tel.: 94 430 23 45
ALGORTA

Agencia Oficial

OMEGA
LONGINES
RADO

SWAROVSKI
S.T. Dupont
LLADRÓ

Gelaya INMOBILIARIA
HIGIEZINEN KUDEAKETA
EROSKETA - SALMENTA
ALOGERA...

Iturriaga, 92
Tel.: 94 473 07 78 • Faxa: 94 473 07 69 • 48004 SANTUTXU - Bilbo

EKOLOGISTAK
BIZKAIA
mar txan

Ekiozu ekologiarri gurekin!

EKOETXEA
Pelota Kalea, 5
Bilboko Alde Zaharrean
Tel.: 94 479 01 19
embizkaia@ekologistakmar txan.org

Lascaji pub
Ronda, 2
Alde Zaharra
BILBO

Musika ta giro euskalduna